

Premio Nacional de Traducción 1992

Xabier Mendiguren

Seigarren aldia da Kultura-Ministraritzako Espainiar Letren Sai-lak Sari Nazionalak banatu dituela Narratiba, Saiakera, Espainiar Historia eta Itzulpen-alorretan.

Azken eremu honetan, finalisten artean, hamar obra zeuden hau-tagai: *La repetición*, Peter Handkerena, Eustaquio Barjauk alemanie-ratik gaztelaniara itzulia. *El puerto de Toledo*, Anna Maria Ortesere-na, Esther Benítezek italieratik gaztelaniara itzulia. *Iliada*, Homero-rena, Emilio Crespo Güemesek grekotik gaztelaniara itzulia. *Seis noches en la Acrópolis*, Yorgos Seferisena, Vicente Fernández Gon-zálezek greko modernotik gaztelaniara itzulia. *El inocente*, Ian McEwanena, Maribel De Juanek ingelesetik gaztelaniara itzulia. *Middlemarch* (I-II) George Eliotena, José Luis López Muñozek ingelesetik gaztelaniara itzulia. *El templo de Salomón*, Juan Bautista Villalpandorena, José Luis Oliver Domingok latinetik gaztelaniara itzulia. *Los mandarines*, Wu Jingzirena, txineratik gaztelaniara itzu-lia. *Invenciones*, Tommaso Landolfirena, Angel Sánchez Gijónek italieratik gaztelaniara itzulia. *A la ricerca del temps perdut* (3 tomo), Marcel Proustena, Jaume Vidal Alcover eta M. Aurèlia Capmanyek frantsesetik katalunierara itzulia.

Sari nazionala *Los mandarines* eta *Seis noches en la Acrópolis* obren itzultzaileen artean banatu da ex aequo.

Itzulpengintzan emandako biritza osoarengatik saria, berriz, Esther Benitez Eiroa (15-4-1937) ferroldarrantzat izan da. Filosofia eta Letretan lizentziatua, Filologia Erromanikoan eta Italiarrean espezialdua, Madrilera Konplutensean, eta bertan Doktoregoa egin. Udako kurtsoak Sorbonan eta Perugian emana da.

1972-1974 bitartean APETIren idazkari orokor izana eta 1979-1981 bitartean erakunde beraren presidente izan zen. 1983an ACEko (Asociación Colegial de Escritores) Liburu-Itzultzaileen Sail Autonomoa sortzen du, gero bertako presidente eta ondoren ACEren presidente-orde izateko.

1990an CEATLen presidente da.

1965az geroztik 100 titulu baino gehiago itzuli ditu frantses eta italieratik, besteak beste, honako autore hauen obrak: Boccaccio, Macchiavello, Manzoni, Pavese, Italo Calvino, Moravia, Pasolini, Buzzatti, Savinio, Maupassant, La Rouchefoucault, Victor Segalen, Zola.

Bestalde, 1992ko ekainean, Frantziako Kultura Ministrariak «Chevalier de l'Ordre des Arts et des Lettres» izendatu zuen, frantses literatura itzultzen egin duen lana saritzeko.